

Nafarkaria

• ostirala • 2001eko abuztuaren 3a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Lekunberri • Trenaren inguruko erakusketa paratu dute Plazaola Patzuergo turistikoaren egoitzan
Patxi Larrea • «Maitatuak izan daitezzen oso argiak izan beharrik ez dutela irakatsi nahi diet umeei»

• ARGAZKIAK: OSKAR MONTERO ETA MIKEL SAIZ




Bonbilla piztu eta ideia zoragarri bat edukitzea ez da nahikoa izaten burutapen hori gero gauzatu ahal izateko. Ideia zoragarria izatea, haatik, nahitaezkoa izan ohi da berrikuntza bat aurrera atera ahal izateko. Bata eta bertzea, ideia eta hura gauzatzeko baliabideak, batu egiten direnean, enpresa bat sortzeko aukerak anitz dira. Nafarroako Enpresaren eta Berrikuntzaren Zentro Europarrak (CEIN) horretan dihardu, eta zer edo zer egiteko asmotan dagoenak ametsak egia bihurtzeko aukera ezin hobea du bertan.



Lekunberri • Trenbide zaharrari jarraiki

Urtebeteko lanaren ostean, 1902tik 1953ra Iruñetik Donostiarainoko bidea egiten zuen Plazaola izeneko trenaren historia ezagutzeko parada izanen da uda osoan, Plazaola Partzuergo turistikoaren egoitzan.

Pasadizo bitxiz eta argazki zaharrez osaturiko erakusketa dago ikusgai Plazaolan



Iruñetik Donostiaraino bidea egiten zuen Plazaola trenaren antzinako irudi xarmangarria. ● EGUNKARIA

PLAZAO LA KO ISTORIOAK DEITU- riko erakusketa, urtebeteko lanaren emaitza izateaz gainera, XX. mendeko ispilu ere badela erran daiteke; izan ere, trenak 1902. urtean aurreneko bidaia egin zuenetik Plazaolaren ibilbidea urteetan bizirik egon da, eta egun haren itzalean ekitaldi anitz antolatzen dira. Egunotan, esaterako, eta uda osoan, tren haren argazkiak eta pasadizoak ikus eta irakur daitezke, bertzeak bertze. Jose Antonio Kruz erakusketaren arduradunak eginiko dokumentazio lanari esker, azken ehun urteetako Euskal Herriko zein nazioarteko berriak irakurtzeko eta argazki zaharrak ikusteko aukera paregabea izanen du, hain zuzen ere, antzinako trenaren historia ezagutu nahi duen orok.

Plazaola trena, hasiera batean Leitzaran esaten zitzaiona, Plazaola meategitik ateratako burdin materiala Andoaingo geltokiraino garraiatzeko sortu zen, baina, denboraren poderioz, bidaiariak garraiatzeko trena izan zen. Trenbideak Donos-

tia eta Iruñea lotzen zituen, honako geltoki hauek tarteko: Iruñea (hiria), Iruñea (lotunea), Aitzoain, Saratsa, Irurtzun, Lata-sa, Lekunberri, Uitzu, Leitza, Areso, Plazaola, Ameraun, Olloki, Andoain, Lasarte, Añorga eta Amara.

Erakusketan, tren zaharraren inguruko honako pasarte hau irakur daiteke: «Plazaolak Iruñera egin zuen lehenengo bidaia 1913ko uztailan izan zen.

Ez zen inaugurazio bidaia izan, ezta entsegua edo antzekoa. Enpresako zenbait langilek tren hartu zuten sanferminetara joan eta zezenketa ikusteko». Jose Antonio Kruzek gogoratu duenez, «hurrengo urte hasieran, inaugurazio ekitaldia egin ondoren, Plazaola garraio zerbitzu publiko gisa funtzionatzen hasi zen».

Urteetako historian gertatutako pasadizo bitxien artean ho-

nako hau ere jaso du erakusketaren arduradunak: «Plazaola abian jarri izana inguruko herri gehienentzat onura iturri garrantzitsua izan bazen ere, igande batez, Leitzako meza nagusian, fraide bat pulpitutik honela mintzatu zen: Leitzan ez litzateke irain bakar bat ere entzungo Plazaola mada-rikatua iritsi izan ez balitz». Lekunberri, berriz, igandeetan, jendea geltokitik paseatzeko apaindu egiten zen, eta trenari ongietorria eta agurra musikaz egiten zitzaion. Gainera, trenari esker, gose nagusi zenean janari kontra-bandoa -ogia, patatak, babarrunak...- herrietara iristen zen.

Plazaolak aurrerakuntza ugari ekarri bazituen ere, Iruñetik Donostia- ra joateko lau ordutik gora behar izaten zituen. Autobusak, ordea, hiru orduan egiten zuen bidaia.

Trenaren amaiera 1953. urtean izan uholdeekin etorri zen; izan ere, uraren indarrak erabiltzen utzi zuen trenbidea. Azkenean, 1958an trenbidea altxatu egin zuten.

→ Estibalitz Ortega

Xareta
•
Axular
ezagutaraztea
xede duen
Kultur Astea

Datorren astelehenean, hirlaren 6an hasi eta abuztuaren 11 arte, Xareta lurraldeko Kultur Astea ospatuko da, Ainhua eta Urdazubiko herriko etxeen ekimena dela eta. Ekitaldiaren xedea Axularren lana eta bizitza ezagutaraztea da, eta, horretarako, astelehenetik larunbaterat haren sortetxea zabalik izanen da goizeko 10:00etatik arratsaldeko 19:00ak arte. Honetaz gain, anitz ekitaldi egingen dira aste osoan.

Ostegunean antzerki emanaldia izanen da Urdazubiko plazan, Europako herri tikieta-ko hizkuntza guztiak ordezkatzeko dituen antzezlanarekin. Ostiraletan, aldiz, *Euskal kantu berria 60ko urteetatik orain arte* mintzaldia eskainiko du Christian Laprerrie musika idazleak. 16:00etan izanen da, Ainhua-ko Herriko Etxean. Iluntzean, berriz, Atsulai kantarien emanaldia izanen da elizan.

Larunbatean ere mintzaldia izanen da. *Axular, euskara Nafarroan eta euskararen kutsua Pirinioetan* izanen du- te ardatz Urdazubiko plazan biltzen direnek. Bertan Euskaltzaindiko eta EUEko ki- deak izanen dira, bertzeak bertze. Eguerdialdera, zikiro jatea izanen da monasterio-ko klaustropean, bertsolari eta musikariekin. Ekitaldiei amaiera jartzeko, arratsean, 19:00etan hain zuzen ere, kantu gregorianoak izanen dira aipatu monasterio-ko klaustroan.

→ Kristina Berasain

ziutatea

ARITZ AGIRRE



Ez dakit nori entzun nion, baina arrazoi osoa zuen Nafarroa Euskal Herriko Hego Amerika dela esaten zuenak: «Bere lapurreta, terrateniente, jauntxo, armada eta guzti».

Gazteluko plazako parkinean aparkatuko du La Perla hotelean lo egin nahi duenak, Maisonavera doanak autoa San Frantziskoko aparkalekuan uzten duen bezalaxe. Zalantzan, balizko parkin gorrotatuena zezen-plazakoa bezain garestia izanen den, edo Karlos III.ekoaren antzera, itoginez bete eta goitik behera eroriko zai- gun tantaka-tantaka. Argikizun betiere, Barcinaren besa- peko parkintxo berria gainontzekoak bezain hutsik ego- nen ote den. Auskalo.

Parkina gero eta handiago are ubeldura, kolpe, atxilo- keta eta aparkatzeko arazo gehiago. Ulertezina. Bizila-

gunen beharrak asetzeko parkin berri batekin asaldatzen gaitu udalak urtero, eta, aldiz, parkinak egin ahala, autoa uzteko arazoa areagotu egiten da. Hori gutxi balitz beza- la, alde zaharretik kanpo lur azpiko beste hiru aparkale- ku proiektu oniritzia eman zaio aste honetan. Denborak eta herritarren erantzunak argituko digu hauek ere espe- kulatzeko edo hiriarren zerbitzurako eraikiko dituzten. Ondoren jakin beharko genuke zein senar edo zein koi- natak zuzendu eta kobratu duen zerbitzua.

Etzeko egongelan, larrutik nozitu dugu gure Genoa partikularra, errepresio besta pribatua. Hala ere, lasai egon zaitez, Yoli, oraingoan egunkarietako argazkietan poliziaren aurrean korrika, herrenka, hasperenka ikusi ditugun beterano eta pelukeriako andre potoloak ez dire- lako, ez, zuk esan bezala, ohiko kale borrokako protago-

nistak. Guziek barka diezadaten, baina hiri gerrilla horre- kin gune urdina zaintzeko agenteak ere aski liriteke edozein istilu baretzeko. Jakina baita aparkalekua behar eta parkinik nahi ez duten bizilagunak direla jipoiutako- ak.

Modan dago herri kontsulta eskari oro indarkeriarekin parekatzea, eta, aldi berean, lau urtean behin eginiko kontsultak zilegitasuna ematen dio irabazleari etzeko egongela zultzeko ere, polizia armatuz josia. Arrazoa zuen, bai, Nafarroa hirugarren munduko herri liberal horiekin parekatu zuenak. Eta tarteka, manipulazioa horren agerikoa denean, hemen ere Marcos subkoman- dantearen falta sumatzen dugu. Jakin dezaten kazikeak soilik koka-kola eta izotzarekin maite ditugula. Hemen, Seattlen eta Genoan.

Lizarra • Sortzaile gazteak

Nafarroako Gobernuak antolatzen duen Sortzaile Gazteen Lehiaketako saridunen lanak ikusgai

Gustavo de Maeztu museoan, Nafarroako Gobernuak urtez urte antolatzen duen lehiaketako azken irabazleen lanak ikus daitezke hilaren 19 bitartera. Hainbat estilo lantzen dituzten hiru artistaren lanak paratu dituzte.



Gustavo de Maeztu, Lizarran dagoen kultur museoan paratu dituzte artelanak.

● LUIS AZANZA

UZTAILAREN 5EAN ZABALDU zen, Gustavo de Maeztu museoan, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Hezkuntza Sailak urtez urte antolatzen duen Sortzaile Gazteen Lehiaketako erakusketa. Bertan, hilaren 19ra bitarte irabazle suertatu diren hiru gazteen lanak ikus daitezke. Oscar Ranz, Miguel Pueio eta Eukeni Callejo izan dira, hain zuzen ere, aurten garai-le. Lehiaketaren helburua, Juan Ramon Corpas Kultura sailburuak aditzera eman zuenez, arte garaikideari erantzuna ematea da. «Sormenaren munduan ari diren gazteei laguntza eskaini nahi diegu sari honekin, izena eta tokia izan dezaten», azaldu zuen Corpasek inaugurazio egunean. «Artearen funtzio kulturala eta soziala ere nabarmendu nahi dugu lehiaketa honen bitartez. Sormenaren eta mo-

dernitarearen aldeko apustua da», gaineratu zuen.

Erakusketak biltzen dituen hiru gazteen lanak erabat ezberdinak dira. Hiru gazteek artea ulertzeko eta azalarazteko modu ezberdinak lantzen dituzte. Oscar Ranz margolanek espresionismo abstraktuan dute jatorria. Oihalean margoa goitik behera limurtzen uzten du, gero finkatu egiten du edo kendu, kasuan kasukoa. «Bizitza honetan egiten dugun oro bilaketa kontzeptuari zuzenean lotuta dagoela pentsatu nahi dut. Artelana

nire barne interesaren eta bilatzeko ahalmenaren emaitza da», azaldu du Oscarrek.

Hagitz desberdina da Miguel Pueio gazte iruindarraren lana. Ispilu eta argiekin jolas egiten du bere instalazioak sortzeko. Haratago, infinitura joaten diren irudiak galdu egiten dira ikuslearen begiradan. «Ispiluekin sortu ahal den espazio birtuala aztertzea dut gustuko. Ikusleak nolabait leiho handi baten bareean sentitzea nahi dut. Gure barnean begiratzeko aldarrikapena da nire lana»

Eukeni Callejoren kasuan, antzinako zeramikak eta eskulturak bat egiten dute. Gogoeta sakon baten ondorioz sortzen diren forma soilak omen dira haren lanak. «Ez dut ezer berezirik bilatzen, gauzak noiz agertuko esperoan nago. Artelanak egiten ditudanean ez dut inolako xede edo asmorik. Gauzak egitera bultzatzen nauena gure errealitatearen barne-barneko espresioa izan daiteke».

→ Kristina Berasain

herri aldizkariak

Haritz Urra

Gaixorik dauden haurrak laguntzeko elkarteak sortu berri da Sakanan

Garapena bultzatzeko terapiak eta beharrak betetzen laguntzeko xedea duen fundazioa sortu berri dute Sakanan. **Guaixe** hilabetekariak bere azkeneko alean jasotzen duenez, bailarako zenbait biztanleren ekimenez sortu da DENENA Fundazioa. Bertako bazkideek adierazi dutenez, ekimena medikuntza ofizialetik at dago, eta medikuntza ofizialaren alternatiba izan nahi du.

Fundazioko kideek edozein haurren gaitz neurologikoak sendatzeko nahia agertu dute. Elkarteak sortzeko arrazoiak bat familia ba-

koitzak bizi duen bakardadea saihestu eta informazioa eta aholkuak trukatzeko da, baita seme-alabentzako dietako produktuen eta sendagaien erosketak bateratuak egitea ere, elikagai edo sendagai horien gastua merkatzeko helburuarekin. Izan ere, sarritan seme-alabak edukitzeak gastu handia dakar elikagai bereziak erosi behar direlako, eta haiek maiz garestiegiak izaten dira.

Horregatik guztiagatik, DENENA fundazioak dirua lortzeko kanpainak egin ditu, gaitz neurologiko larriek bazkide guztien artean aurre egite-

ko. Duela gutxi Sakanako bi haur eraman dituzte Errusiara, beren gaitzak sendatzeko tratamendu berezia behar zuten, ebakuntzak hango klinika pribatu batean egin diezaieten; mikrokirurgiako klinika berezi batean trata ditzaten, hain zuzen ere. DENENA Fundazioko kideak oso kontent daude lortutako emaitzekin, eta martxa horretan jarraituz gero, udazkenean bazkide kanpaina egingen dute, lehen agerraldi ofiziala eginez. Fundazioak hainbat familiaren ekonomiei laguntzea nahi du. Angel Goñik **Guaixe** aldizkarian adierazi duenez, «dauden terapia berritzaile gehienak pribatuak dira eta garesti xamarrik dira». Hala, «tratamendu garestia behar dutenei laguntza ekonomikoa eman ahal izanen zaie».

Nafarroako hondartzak

Espainiako Ceuta eta Melillan zein kostaldeetan hesi handiagoak jarri dituzte. Benetakoak diot (aireportuetan polizia giza hesiak daude).

Badituzte txakurrak, laserrak, metrailetak, gauko itzalak uxatzen dituzten fokoak... eta horrela (hainbeste oztopo ekidin nahian) jendea erruz hiltzen da itsasoaren bidezidorrak harturik, baina nonbait... honi ez zaio «nacionalismo excluyente» deitzen ahal. Horrek ez du kontzentrazio esparru batekin parekatzerik. Kasu honetan ez dago «XXI. mendean mugak ezartzea txorakeria da» esaterik. Honako hau «beste gauza» bat baita, eta arrazoi osoz gainera, zeren honako hau Estatu Arrazoiaren barruan sartu baitute, eta horrela ixten dira eztabaida guztiak Espainiako Erreinu honetan: Estatu Itun batekin. Itunarekin Etorritzen Legea hitzartu zuten eta Errealitateak, bortizki, erakusten digun Kaosaren gainetik halako ordena bat eraiki zuten.

Lege honen arrazoiak jaurtik esaten digute orain zer dela-eta batzuk Erreinu sartzan ahal diren eta zer dela-eta beste batzuk ez. Badira salbuespenak: Erreinu Arteak neskameekin salbuespena egitea eskatu zuen... baita lortu ere. Deputamadre neskameak behar dituenarentzat. Gero esango digute Afganistango emakumeak ezin daitezkeela medikuak izan, non eta Afganistanen, aitortzen zaien egoera bakarra etxekoandarena dela, Afganistanen. Nik esango dizuet Afganistango emakume batek zer izan behar duen Erreinu honetan (baldin eta Erreinu honetan sartzeko ahaleginetan badabil): Neskamea. Eta etxekoandre edo medikua? Ez, ba. Neskamea. Hori edo txaluparen bidézidorra. Aukera dezala. Majo Arteak! Kristoren Humanista!

Aste honetan bertan, Ekuadorko 80 bat lagun (hegazkinez aireportura iritsitakoak, pasaporte, itzultzeko billetea eta turistek eskatzen zaizkien diruak zituztenak) Ekuadorrerantz itzularazi egin zituzten, turismoa egitera ez zirela etorriak sumatu baituzten poliziek. Estatu Arrazoiaren oinarritutako legeek hori dute: edozein poliziaren susmo edo iritziak gainontzeko lege eta araudiaren gainetik ezartzen dituztela. Beraz, «Nafarroako hondartzak» ezagutzera etorria zela erantzun zuen ekuadortarra, dagoeneko, Ekuadorren dago. El País-ekoek pentsatuko zuten erantzun horrekin barrez lehertuko nintzela. Ez, ba! Sekulako tristura eman dit egoera guztiak. Eta sekulako nazka Erreinu atal guztiak, Estatu kazetariak barne. ●

HIZKUNTZA AHOLKULARITZA © Mikel Anaya

«Gure lan eremua zabaldu ahal genuela ikusi genuen»

Galerada. Horrelaxe deitzen da Mikel Anaiak bertze hiru bazkideekin batera martxan jarri duen enpresa. Ezin zuen bertze modu batez izendatu. Galerada zuzenketak egiteko erabiltzen den testu baten kopia da. Horretan jardutea liburuak eta bertzelako argitalpenak inprimategira eraman aurretik egin beharreko zuzenketak egitea da, alegia. Hala ere, eskaintzen dituzten zerbitzuak zabalagoak dira. «Hasiera batean, zuzenketa lana baino ez genuen egiten, baina ikas-



taoan gure eremua zabaldu ahal genuela ikusi genuen eta, horren eraginez, gure bezeroak ere anitz izan ahal zirela», azaldu digu Anaiak. Gauzak horrela, hainbat hizkuntzatar itzulpenak egiten dituzte orain, eta, halaber, al-dizkariak, gidoiak, prentsaurrekoak, memoriak, hitzaldiak eta bertze ere idazten dituzte. Ikastaroa egiteak bazkideen iriz-tziak eta ikuspuntuak bateratzeko

LOREZAINZTA © Nerea Agirre

«Inoiz pentsatu gabeko gauzen berri eman digute»

Orainxe amaitu berri dute CEINeko ikastaroa, eta 2002. urteko udaberriko ipini nahi dute martxan enpresa. Udaberri izena jartzea pentsatzen ari dira, gainera. Nerea Agirre bertze hiru lagunekin ari da enpresaren nondik norakoak zehazten. «Eremu txikiak landu nahi ditugu, lur sail txikietan dauden lorategiak; baina ez hori bakarrik: diseinu berriak ere egin nahi ditugu, eta gero horiek mantendu eta zaindu», azaldu du Nere Agirrek. Haren ustetan, antzeko lorategiak



daude han eta hemen, eta gauza berriak, desberdinak eta politikak egin ahal dira lorezaintzan. «Bezeroaren nahietara egokitu behar dugu gure lana, baina ideia berriak eman nahi ditugu». Lorezaintzaren inguruan enpresa bat sortzeko asmoa aspalditik zuten, baina egin berri duten ikastaroan gauzak argitu ahal izan dituzte. «Enpresa bat martxan jartze-

ZIZARE HAZTEGIA © Jose Miguel Izu

«Nire ideiak bideragarriak direlako konfiantza eman didate»

Erreniega mendatearen magalean, Biurrun herrian, milioi bat zizare dauka Jose Miguel Izuk. Metro karratu bakoitzean 8.500 zizare inguru. Haiak 20-30 tona bitarteko humusa sortzen dute urtean. «Zizareak haz daitezen egoera egokia behar dute izan, ez bero sargoririk, ezta hotz gorrikerik. Hamabortz egunean behin ardiaren simaurra botatzen diet, txantxartuta jakina, eta hori jan ondoren humusa botatzen dute», azaldu du Izuk. Humusa ongarrri gisa erabil-

ten da bai nekazaritzan bai lorezaintzan. Humus kilo bakoitzak 20 pezeta balio du. «Zizare bat 16 urte bizi ahal da, eta astean behin ugaltzen dira. Ugalketa bakoitzeko 2-14 kume jaio ahal dira». Jakinduria osoz mintzo da Jose Miguel. Egin berri duen ikastaroa behin betikoz bere asmoak gauzatzeko indarra eman diola aitortu du: «Aurrera ekiteko behar nuen konfiantza eman didate; enpresa bideraga-



ria izan daitekeelako konfiantza, hain zuzen ere». Hemendik urtebetera jarri nahi du martxan enpresa. Zaletasuna negozio bihurtzea ametsa da harentzat. «Nire kabuz ibiltzeko aukera emanen dit», adierazi du.

Ametsk egia bihurtu zirenekoa

Enpresak sortzen laguntza CEINek antolatu dituen ikastaroek arrakasta handia izan dute aurten ere

Nafarroako Enpresaren eta Berrikuntzazentro Europarrak (CEIN) pausoz pausoz aztertzen dituen enpresak martxan jartze beharrezkoak diren baliabide guztiak. Jendeak hara jotzen du, sarritan ideiak batekin, baina, adituen laguntzarekin, enpresaren egitura zehaztuz joaten aurrera ekiteko puntu guztiak hartzen dituzte aintzakotzat orduan: marketinga, komunikazioa, finantzak, arlo juridikoa eta giza baliabideak, bertzeak bertze. Huztiaz barneratuta, enpresari berriek ametsak egia bihurtzeko aukera izaten dute.

HAMAHIRUGARREN URTEZ ANTOLATU DU Nafarroako Enpresaren eta Berrikuntzazentro Europarrak (CEIN) ekin-tzaile berrientzako ikastaro emankorra. Urte hauetan 502 sustatzaile lagundu dituzte zentroak, eta horietatik 326 proiektu gauzatu egin dira. Merkaturatu diren enpresa berri horien eraginez, 950 lanpostu sortu dira Nafarroan. Ez da makala, beraz, erakunde horrek egiten duen lana. Askori ideiak argitu eta oinak lurrean edukitzeko aukera ematen die ikastaroak; bertze batzuei, inoiz pentsatu ez zuten horretaz jabetzeko edo enpresa ikuspegi zabalago batekin ikusteko. Fernando Baztan Formakuntza Sailaren teknikariaren hitzetan ikastaroen xedea, oro har, laguntza eskaintzea da. «Gureganat hurbiltzen den orori formakuntza, adorea eta laguntza ematen diogu, beti ere, buruan duten ideia edo asmo hori aztertutik eta gauzatu dezaten» adierazi dio Baztanek NAFARKARIARI. Zentru horretan, CEINera hurbiltzen diren artean ekimen handiko gazteak aipatu behar dira «talde kopurutsuena dira» ettan digu teknikariak, baina dagoeneko enpresa martxan dutenen kasua ere

nabarmendu beharrezkoa da. «Sarritan enpresa martxan duten pertsonak etortzen dira gureganat. Azken hauetara beren negozioak sendotzen laguntzen diegu» gaineratu du. Aurten, aurreneko aldiriz, Interneten bidez egin ahal izan dute ikastaroa zenbaitekin. Guztira 19 partaide izan dira on line zuzenean Internet bidez ikastaroa egin dutenak. Hauxe da modu berezi horretan egiten den aurrenekoa, eta emaitzak oso onak izan bide dira. Aztertutik 68% proiektuak martxan jarri dituzte. Hain zuzen ere, 35 proiektuetatik 24 bideratu dituzte. Eta guztiak martxan ipiniz gero, 66 lanpostu berri sortuko dituzte. Partaide batzuek egia bihurtu dute urteetako ametsa, eta dagoeneko martxan jarri dute euren enpresa; bertze batzuk, aldiriz, azkeneko tramiteak egiten ari dira, eta datozen hilabeteotan sartuko dira lehiari merkatuan. Batzuekin eta bertzeekin aritu gara hizketan, ametsaz, errealitateaz, zerbaitzuk, beldurraz, pozaz eta zailtasunez eta, batez ere, guztiz lagungarri suertatu zaien ikastaroaz.

→ Kristina Berasain

WEB ORRIEN DISEINUA © Ricardo Perez, Israel Elosua eta Mikel Aramendia

«Teorian ikasitakoa praktikan jartzea izanen da zailena»

Diseinatzaile grafiko bat, enpresaritzako lizentziaduna eta delineatzaile bat bildu dira gúebo.com enpresa sortzeko. Hori bai izen bitxia. Arrautza jari berria dago eta txita oraindik ere eskolaren barruan omen dago. Orainxe hasi da kras-katzen. Gúebo.com enpresaren zeregina web orriak diseinatzea da, eta horretarako zuzen-zuzenean egiten dute lan bezeroarekin. «Bezero bakoitzaren ikerketa zorrotza egiten dugu, eta haien nahietara eta irudira moldatzen dugu gure lana», azaldu dute hiru kideek aho



aburuz, zailena hasiera da. «Jende-ari hemen gaudela jakinaraztea da agian zailena. Eta, jakina, teorian ikasitakoa praktikan jartzea». Egunotan Nafarroa Oinez-eko orrialdea prestatzen ari dira, eta gúebo.com egia bihurtutako ametsa izateko itxaropena dute.

AGENTZIA BIDAIA © Xabier Mikel Errekondo

«Hankak lurrean jarrarazi dizkit»

Eskubaloian jokatzeko ezin zela luzez egon pentsatzen hasi zen Errekondo. Aurten Leon aldera joan da, baina badaki hemendik urtebetera edo kirol profesionala utzi behar izanen duela. Informatikako lizentziaduna da, eta, lanaren alorra finkatu beharra zegoela pentsaturik, bidai agentzia bat ireki berri du Iruñean: Giramondo Bidaiak. Ber-tan bere plazeretako bat, bidaiatzea, eta lana uzartu ahal izan ditu. «Oporretan lasai egon behar du bezeroak, eta gu ondo egonen delako segurtasuna eskaini nahi dio-



kit. Sinestea izan da zailena, eta aurrera egiteko zure proiektuan sinestea ezinbestekoa da», aitortu du. Bere ametsa gauzatzeko ari da, nolabait. «Oso gustura gaude. Pozik gaude sortu dugunarekin».

ARGAZKI DENDA ETA LABORATEGIA © Alicia Fernandez eta Josune Etxaide

«Tramiteak egiteko orduan oso lagungarri suertatu zaigu»

Ez da argazki denda arrunta Alicia Fernandezek eta Josune Etxaidek martxan jarri dutena. Ohiko argazki pelikula eta argazki albuma sal-tzeaz gain eta betiko ezkontza er-reportaia grafikoak egiteaz gain, berri-kuntza nabaria ipini dute den-dan: zuri-beltzeko argazki labora-teria, hain zuzen ere. «Argazkilaria profesionala eta erakundeek hori-aragoa suertatu zaigu». Alde hori-eretatik, denda kokatu duten alde-are sakon aztertutik, izan ere, «ez



genuen horretan pentsatu ere egin». Biak argazkilaria izani, k ametsa errealitate bihurtu dute, eta gustuko duten lanean ari dira buru-belarri.



Eltxoez

Igel gorriaren ugalketa.


Ez dakit deus igel gorriaren ugalketa ohiturez. Animalien inguruko erreportaia gutxi ikusi ditut. Gizaseme –eta alaba– arruntek bazkalondan, sofangoxoxo-etzanda, loaren eta esnaldiaren arteko muga atseginen ikusten dituzte horrelakoak telebistan. Haatik, mundua mundu denetik, nik, tenore horretan, kuluxkaren aukera tentagarriari muzin egin, eta betebeharraren deiari erantzun behar izaten diot, Monte Carlora jaitzi behar izaten dut, mus partida jokatzeko. Betebeharra betebeharra da. Ez nintzen horretaz damutu joan den igandera arte.

Corella, foru pentsalarien sorburu.

Emaztearen lehengusinak haurra eduki berri du, eta hori dela kausa igandean bisitan joan ginen Foru Erkidegoko pentsalaririk handienetako zenbait munduratu dituen herrira, Corellara. Nire seme-alaben amaren lehengusina **Alberto Catalanen** eta **Miguel Sanzen** herriko arte eskolan irakaslea da –arte eskola dute Corellan, bai–. Han bizi da. Eta han, etxebizitzaz gain, baratzea du, baratzearen ondoan etxola, eta etxolaren alboan pizsina. Igerilekua denik ezin esan, putzu txiki horretan ez baitago igeri egiterik. Hantxe, baratzean, etxolan, pizsinan eman genuen igande arratsaldea.


Corellako ilunabarra.

Arratsalde atsegina izan zen; haize zipitzik ga-



Eltxoa.

beko ilunabar sargoritsuan eltxo saldoak inguratu gintuen arte. Agnostikoa naizela aintzat hartu gabe, arima bera ziztatu zidaten. Seguru asko eltxo txistu gaindosiak jota, **Felix Rodriguez de la Fuente** zena edo **Lucia Etxebarria** dena banintz eta pantaila txikitik solasean ariko banintz bezala hasi nintzaian inguruan nituen senideei: «Eltxoek zergatik ziztatzen naute gehiago ni? Nola dakite orkatilan daudela ziztatzeko zainik samurrenak? Horren txikiak izan arren, azkarrak, oso azkarrak dira». Jon, semea, serio demonio oldartu ziztazidan, ezjakintasun marka guztiak ahutsi izan banitu bezala: «Aita, eltxoak tontok dira: *National Geographic*—en ikusi



Lucia Etxebarria.

dut ziztatzen uzten badiezu odola ez-tanda egin arte xurgatzen dutela. Begira». Eta, mugitzeke, besoan zuen eltxoari ziztatzen utzi zion, ez-tanda egin arte.

Eta nire aita-autoestimua ez-tanda egin zuen eltxoekin batera.

Barcina eta Baygon.

Jonen irakaspenak hiru gogoeta eragin zizkidan, Nafarroako Ospitaleko larrialdietarako zerbitzuan eman antistaminikoen laguntza izanagatik ere, hagitz luzea egin ziztazidan igande gauean. Batetik, oso litekeena da eltxoek ni ziztatzea edandako dozenaka, ehunka, milaka kuba-libre litroen poderioz odola Naliako limoi-izotza baino gozoagoa dudalako. Bestetik, aurrerantzean seme-alabei telebista gutxiago ikusten utziko diet. Azkenik, metafora polita: **Yolanda Barcina** eltxoa bezalakoa da; ziztatzen uzten badiozu, Gazteluko plazakoa bezalako afera batekin ez-tanda egin arte xurgatzen dizu odola. Biharamunean, astelehenean, Monte Carlon, esku artean hiru errege, bateko bat eta kuba-libre basokada nituela, metaforaren berri eman nion ikurrina baino

baskoagoa den Gerardo mus bikotekideari. «Metafora polita, bai. Baygon erosteko gogoa eragin dit», erantzun zidan.



panpilonia zirkus

Pello Argiñarena

Plazapeko plazak

Txoko. Tropicana. Eslava. El kiosko. Sevilla. Okapi. Gure etxea. Windsor. Iruña. Delicias. Bearin. Eta, batez ere, Subuelo. Hain zuzen ere, lur azpikoak azaleratu du haserrea. Biktima nagusiak, orain arte, lur gainekoak. Platanorik gabeko platanok. Konstantinoplako akaziak.

Hiriaren bihotzari birrikak moztu dizkiote. Anestesiarik gabe, gainera. Bisturriaren orde, motozerra erabili dute ebakuntza egiteko. Gaueko ordu ttikietan eragindako zauri sakonak begi bistan daude.

Itzalpean egoteko aukera kendu digute. Plazapean plazak egin nahi dituzte. Iruñeko perla nagusia Ernest Hemingwayk ostatu hartzen zuen La Perlaren azpiko interesen arabera dago.


Nolanahi ere, hiritarrek diamantea baino gogorragoa dute burua. Baten batek, ordea, zortzi puntu hartu behar izan ditu

jasotako makilakazoa are gogorragoa izan delako.

Goitik behera baino gehiago, behetik gora aldatu nahi dute hiriburuko egongela. Beti ere, aginduak goitik behera ematen dituzte, 25.000 lagun iritzia bazterrean utzirik.

Gazteluko plaza. Klase, kolore eta adin orotariko biztanleen topalekua. Non bilduko dira erretiratuak udaberriko eguzkiaren peskizan. Non amaituko dituzte manifestazioak losdesiempretarrek. Non janen dituzte gaztetxoek Gretelen erositako pipak. Non irakurriko ditugu Leoz kioskoan erositako egunkariak igande goizean. Non dastatuko dute etxe txikiak Los Jijonencosen erositako tutifruki zaporeko izozkia. Non eseriko dira kuxkuxeatzera besteon ibilerak miazten dituzten mihi berriketariak.

2002. urteko sanferminetarako obrak



Gazteluko plazak egunotan duen itxura.

bukatzeko apustua dauka Udalak. Apustuak egiteko ohitura oso aspaldikoa da gurean. Plazan bertan, gainera. Besteak beste, XIX. mende bukaeran inauguraturiko Iruña kafetegiko bingo desagertuan, 1931. urtean eraikitako Eslava kasinon eta entzierroaren ostean espartinaren

JOXE LACALLE

dantzialdia antolatzen den Kasino berrian.

Bestetik, betidanik plaza itxia izan zena, Karlos III.a etorbidearen aldera ireki zuten 1920. urtean. Orain, berri, itxi egin dute indarraren bitartez eta hesi metalikoen bidez. Hala ere, hesiak bota egin ziztuzten hainbat lagunek aurreko astean, alkate anderea bi egunez, 48 orduz, faltan bota genuen bezalaxe. Yolanda Barcina dixit. Autoestimua ariketa ikusgarria.

Norgehiagoka hasi besterik ez da egin. Partida luzea izan daiteke. Duela gutxi arte, Osasuna futbol taldearen egoitza nagusia bertan egon da. Uste izatekoa da hats gorritxoaz kemendurik, tinko eutsiko diotela berenari proiektuaren kontrako lagunak.

Patxi Larrea

AKTOREA

«Oso argiak izan beharrik ez dutela irakatsi nahi diet umeei»

Aktore ibiltaria dugu Patxi Larrea, bizitzan beti han eta hemen era guztietako komedietan lan egiten duten horietakoa. Bihar amaituko diren Nafarroako Jaialdietan, Mula Nasrudin ipuin kontalariaren pertsonaia antzeztu du aste osoan.

Pertsonaiak ergelkeria kutsua du, samurtasunarekin nahastuta. Haren istoriek ezkutuko esanahia sakona badute, ekialdeko filosofietan jatorria duten seinale.

GOTORLEKUKO BELARDI BATEAN topatu dugu Mula Nasrudin xelebrea, bere antzerkilana hastear zegoela. Kapela bixia eta zapata zorrotz eta okertuekin egin da ezagun jendartean. Kontaketarekin hasi da. Tartean txistek ere botatzen ditu. Aldamenetik igaro den tabernariak trufatu da, eta banan-banan jendearengana hurbildu da, irribarreak sortuz. Helduek, zaharrenek, txikiek... denek barrezka bukatu dute Mula Nasrudinekin.

■ Jendearengandik hurbil lan egitea gustukoa al duzu?

Bai, publikoarekin harreman zuzena izatea dakarten lanak gustuko ditut bereziki. Jendeak ematen dizuna pilota bat balitz bezala haiei itzultzea biziki gustuko dut. Publikoarekin zuzenean lan egitea eta bat-bateko jarduna dira nik nahiago izaten dudana.

■ Daramazun bizi-erritmoak bat egiten du zuk nahiko zenukeenarekin?

Bai, noski. Ni alde horretatik zorte handikoa naiz. Nafarroako Antzerki Eskolan bukatu bezain pronto, Bartzelonarat joan nintzen lanera, eta geroago Eivissara. Ez zait inoiz lanik falta izan. Orain antzerki eskolan irakasle lanetan ari naiz, artearen komedia eta klown irakasten, nik zehazki kontrolatzen ditudan esparruak. Aldizkako lanak

eta ikuskizun batzuk ere zuzentzen ditut. Ezin naiz kexu egon.

■ Zeintzuk dira zuri Mula Nasrudinek egiten dizkizun ekarpenak?

Ekarpen anitz egin dizkit. Esker oneko pertsonaia da Mula Nasrudin. Lan handia emateaz gain, umore berezi batez gozatzeko aukera eman dit. Umore horrek barregura sortzen du, baina beti beste irakurketa bat eginez. Oso aberasgarria da.

Eta pertsonaiak badu tonto edo umila izatearen abantaila; hala, pertsonaiaren ergelkeria dela-eta publikoak nolabait protagonista ere badela sentitzen du.

■ Haurrei ipuinak kontatzen dizkien

kontalaria da Mula Nasrudin, ala herriko ohiko bromazalea?

Herriko bromazalea da. Kultura ia guztietan dagoen pertsonaia da. Mula Nasrudin, zehazki, Grezian eta Turkian dago. Aktore hori gaitua da gauza askotan, eta entretenimendurako jardunak egiten ditu herrietako festetan. Sakonean egiten dituen gogoetak ere gustatzen zaizkit; lehen aldiz entzuten dituzenean, ez zara horretaz jabetzen, baina gero pentsatzen duzu: «Horrek zentzua badu!».

■ Zure ustez, zeintzuk dira umeei antzeppen honetatik ateratzen dituzten lezioak?



sos la ia

Patxi Larrea urte dezente darama aktore gisa lan egiten. Antzerkiaren munduan aritu izan da beti, eta hamarren bat urte egin ditu horretan lanean.

Nafarroako Antzerki Eskolan eman zituen aurreneko pausoak Patxi. Gerora Italian izan zen hiru urtez, komedia eta klown ikasten. Bartzelonan ere eman zuen denboraldi bat, eta bertan hasi zen lanean antzerkiaren esparruan. Eivissan ere egona da, aktore komiko gisa. Egun Nafarroako Antzerki Eskolako irakaslea da.

● JOXE LACALLE

raz, pertsona batek istorioa entzunda bere bizitzan aplikatu ahal du. Halaber, bakoitzak momentu jakin batean duen aldarrearen arabera, modu batera edo bestera ulertuko du ipuina. Eta jakina, hurrek ere aldarte filosofikoa harrapatzen dute maiz, oso argiak dira.

■ Antzeppen honek mundu islamikoa ezagutzeko eta begirunez ikusteko aukera ematen duela uste al duzu?

Ziur baietz. Ez dakit nola ikusiko duten umeei mundu islamikoa eta immigranteen arazoa, baina telebistan ikusten duten horren guztiaren adierazgarria den pertsona bat ikusteak, atsegina eta maitagarria, ekarpen handiak egin ditzake.

→ Haritz Urrea

Ez dakit, hori galdeiozu haiei [brometan]. Nik haurrei adierazi nahi diedana hauxe da: pertsonaia arraroa edo tontoa izan zaitezkeela inolako arazorik gabe. Izan ere, egun modan dagoena da mundu guztiak halabeharrez bizkorra izan behar duela. Umeei etengabe irakasten diegu lehiakorrak izan behar dutela, irabazi egin behar dutela... Istorioen kontaketaren bidez batek asko ikas dezakeela erran nahi diet eta, bide batez, maitatuak izan daitezten oso argiak izan beharrik ez dutela irakatsi.

■ Ikuslearen adinaren arabera, bakoitzak antzeppenaren irakurketa desberdina egiten ahal du. Helduek irakurketa teorikoagoa eta haurrek irakurketa erromantikoagoa egiten dutela erran daiteke?

Ez. Bakoitzak nahi duen irakurketa egin dezake, ez dago adinaren arabera irakurketa bakar bat. Txistekarekin gelditu eta barre egin dezake, edo erraten dudarekin gogoeta egin. Ekialdeko filosofien arabera, istorioak entzuteak gizabana-koak ezagutzeko bidea da. Be-



Nafar Kronika

Mikel Beramendi

Hitzak eta ekintzak

HITZAK NOLA EDO HALA ELKARREN ONdoan jartzea gauza bat da, eta beste bat, oso diferentea, hitzen bidez munduak sortzea. Lerro hauek idazten ari naizela ni lehenbiziko taldekoa naizela frogatzen ari naiz, ordenagailu aitzinean hitzekin borrokan ari naizelako aginduriko lana burutzeko, bestelako helbururik gabe. Uztailaren 18an Leiren Vianako Printzea saria jaso zuen irunsemeak, aldiz, mundua sortzeko ahalmena frogatu egin du ibilbide luze bezain oparoan. Eta agian horregatik, hitzen erreinuan oso eroso sentitzen delako, literatura babeslektzat aukeratu du.

Printzeak (ez Vianako hark, Espainiakoak baizik) saria emateko aukeratu zuen egunerako, bazen hautagaien artean Sanchez Ostiz baino egokiagorik. Haren semearen lanak, ordea, ez dira aski izan. Politikan zituen xede guztiak lortu dituen gizonak orain maila pertsonalean min hartu du, Nafarroa ofizialak ematen duen sari nagusia aitari eskaini nahi ziolako. Harrigarriena oraingo honetan Nafarroako Gobernuaren jarrera izan da, Jaime del Burgoren ibilbideak islatzen duenaren eta hitzaren artean bigarrena aukeratu duelako: mundu berriak, askatasuna, zabaltasuna, kritikotasuna.

Leiren Sanchez Ostizek eginiko hitzaldiak irakurtzean, herri honetan zenbait idazleren hitzak eskertzekoak direla pentsatu dut. Ez ekitaldian ziren gehienendako, haiek mundu itxi eta estu batean bizi eta biziara nahi gaituztelako. Eta ezta hitza ekintza onartezinak zuzitzeko erabili ohi dutenendako ere. Azken finean, bai gaurko agintariek bai hitza ekintzetara makurrazten dutenen hitzaldiak, sermoiak, komunikatuak, adierazpenak eta gainerako guztiak, egunkarietan toki zabala hartuagatik, jasanezinak dira, gero eta jasanezinagoak. Deus berririk ez sortzeko ahalmenik ez duten idazle txarren liburuak bezain aspergarriak.

gure aukerak

ANTZERKIA

- ▶ **Atarrabia:** *Mundua*, 80 mozo-*rrotan* izenburua duen kale ikuskizuna antzeztuko du gaur iluntzeko 20:00etan Teatre de L'Home Dibuxat taldeak. Ikuskizun horetan, bizitza ulertzeko era ezberdinez eta munduko kulturen aniztasunaz hitz egiten da.
- ▶ **Erriberri:** Gaur hasi eta abuztuaren 19ra bitarte, Erriberriko Antzerki Klasikoaren II. Jaialdia ospatuko da. Bertan, antzerki emanaldi bikainak eskainiko dituzte, betiere antzerki klasikoaren barruan.
- ▶ **Arraitz-Orkin:** Trokolo antzerki taldeak *Lanbidez: printzesa* antzezlana taularatuko du gaur herriko plazan, Herriz Herri kultur emanaldien barnean.
- ▶ **Urrobi:** Ugutz Robles ipuin eta istorio kontalaria emankizuna emanen du gaur gaueko 21:30ean, Urrobi kanpian.

BERTSOLARITZA

- ▶ **Bera:** Gaur eguerdiko 12:30ean, herriko plazan, *Balkoitik balkoira* bertso saio izanen da, Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsolarien eskutik.
- ▶ **Bera:** Igandean, iluntzeko 20:00etan, *Bertso poteo* egingen da herriko karrketan. Bertan, Juan Jose Zubietta *Etxabe*, Joxe Agirre eta Amets Arzallus izanen dira bertsotan. Gaijartzailea Jon Abril izanen da.

JAZZ MUSIKA

- ▶ **Agoitz:** Yerbabuena taldeak kontzertua eskainiko du gaur 22:00etan, frontoian, *Jazz eta bolero gauak* musika emanaldien barnean.
- ▶ **Tutera:** Castel Ruiz kulturunean Javier Garaialde All Jazz

Group taldea entzuteko aukera izanen da gaur. *Jazz momentuak* gaueko 22:00etan puntu-puntu izanen dira.

- ▶ **Tafalla:** Arkakusoen plazaxoan Ammaluisa & Dixielangileak Brass Band taldea arituko da gaur bat-bateko musika sortzen, iluntzeko 20:30ean hasita.
- ▶ **Leitza:** Gaur Tafallan arituko den musika taldea bihar Leitza entzun ahal izanen da: Ammaluisa & Dixielangileak Brass Band jazz taldea, alegia. Musika emanaldia 20:30ean izanen da, herriko plazan.

DANTZA

- ▶ **Otsagi:** Dantza emanaldia eskainiko du bihar gaueko 23:00etan Larratz dantza taldeak. Ekitaldia bertako frontoian izanen da.


IKASTAROAK

- ▶ **Atarrabia:** Jostailuak egiteko tailerra egingen dute hilaren 2tik 30era bitartera, kultur etxean. Ikastaroa astearte eta ostegun arratsaldean izanen da, eta bertan hurrek zenbait objektu birziklatuz jostailu berriak egingen dituzte.

ERAKUSKETAK

- ▶ **Elizondo:** Eskulangileen erakusketa egingen da bihar arratsaldean, Merkatu plazan. Bertan, gure lurraldeko eskulangileen lanak ikusi ahal izanen dira.
- ▶ **Zangoza:** Napar Bideak eta Nafarroako Artisanu-Elikagai Elkartek Nafarroa osoan egingen duten Antzinako Azoka Zangoza izanen da bihar. Arkupeetako plazan, goizez eta arratsaldean, eskulangile anitz ikusi ahal izanen du bertara biltzen den orok.

● JOXE LACALLE



A zer eguraldia!

Neguko hotza gorputzaren barru-barruraino sartzen denean eta txanoa, eskularruak, artilezko tapauka eta galtzerdi lodi-lodiak ipintzera behartzen gaituenean, beroaren zain egoten gara. Egunutako bero sargoriaren eraginez hotza desiratzen dugu, nolabait. Eguzkia dagoenean, lainoa; hodeiak dagoenean, ateri; fresko dagoenean, beroa; gori dagoenean, epeltasuna; euria egingen duenean, oskarbia; eta euri tanttarik egingen ez duenean, euri zaparrada. Horrela nahi izaten dugu. Inoiz ez omen gaude konforme. Eguraldi gizon-emakumeek erran dutenez, hasi berri dugun hilabetean bero zarpaila egingen du; aterkiak zabaltzeko aukera gutxi izanen dugu, beraz, guardasol gisa ez bada.